

B

BARREN



***Bat, bi,
hiru, lau....
Goazen!***

**Josu Mujika,
lehen euskal film
musikaleko koreografoa**

Beitia Arriola

Fisioterapia eta Hortz klinika zentrua

Trenbide kalea 21, behea

HORTZ KLINIKA
ZERBITZUA

943 53 18 69

Jone Beitia Arriola
(Odontologoa)

Ainhoa Gurrutxaga
Arriola
(Klinika laguntzailea)

Eduardo Iriondo
Astigarraga
(Laborategiko teknikoa)

FISIOTERAPIA
ZERBITZUA

943 53 14 02

Olatz Beitia Arriola
(Fisioterapeuta)

Arantxa Beitia Arriola
(Fisioterapeuta)



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kreditutzarekin ordaintzeko erraztasunak

Elgoibar Koloretan

Ustekabian hasi zan dana. Otsail ingurua izango zan bazkide batek Eibarren mahai-joko bat prestatzen ziharduela esan zigunian. Asko gustatu jakun ideia eta, eibar.org elkartekuen laguntziakin, guk ere ekin genion Elgoibarrerako mahai-jokuari: 'Elgoibar Koloretan'.

Zein alkatek jarri zaban estreinakoz ikurriña udaletxeko baldokian 1977ko urtarillian? Eta, zein kaletan zaguon Elgoibarko lehen zine-aretua izan zan Cine de la Petra? Badakizu zein dan Elgoibarko mendirik altuena? Eta zein dan gaur egun langille gehixen dittuan Elgoibarko enpresia? Zein elgoibartar izan zan disko, jabalina eta pisu-jaurtiketan Espainiako txapeldun 13 aldiz?

Horrelako eta antzerako 900 galdera ikusiko dittugu mahai-jokua zabaltzen dogunian. Galdera batzuk aittaren batian erantzutekuak dira, baiña badira buruari hazka egitteko modukuak ere. Hala ere, lasai, galdera guztiak daukez-eta hiru erantzun aukera. Izan ere, mahai-jokua ondo pasatzeko eta gure herrixa hobeto ezagutzeko prestatu dogu. Familixan ala lagunartian, partida bakoitzaren inguruan milla istorixo, kontakizun eta oroitzapen sortuko dira.

Egixa aitortu bihar badogu, guk uste baiño lan haundixagua eta gogorragua izan da; ordu eta jende asko bihar izan da jokua prestatzeko. Gaiñera, proiektua garestixa da (25.000 euro inguru), baiña, orainguan ere, hor egon dira proiektua finan-

tzatzeko prest azaldu diran erakundiak eta enpresak.

Hauei daneri esker aurkeztuko deu Elgoibarko Izarrak 'Elgoibar Koloretan' azaruaren 27xan (eguenan). Eta aurkezpena datorren astian izango bada ere, mahai-jokua gaurtik aurrera egongo da salgai erosi nahi dabanarentzat. la gustatzen jatzuen.

Ander Soraluze
Elgoibarko
Izarrako
presidentea



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Mahai-jokuaren aurkezpen publikua azaruaren 27xan
egingo dogu Musika Eskolan. Gonbidatuta zaudete danok"**

IGARRI DUZU KRISIAREN ERAGINIK?

Herritarren erantzunak
BIDEO IKESTAN
astehenean



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net



JOSU MUJIKA

DANTZARI ETA KOREOGRAFOA

“Ondo dantzatzea, ondo antzeztea eta ondo abestea behar zuten ‘Goazen-eko’ aktoreek”

Euskaraz egin den lehenengo film musikalak da *Goazen*, eta bihar ikusi ahal izango da 19:00etan Herriko Antzokian. Bederatzi gazte dira filmeko protagonistak, eta denetik egin behar izan dute: antzeztu, abestu eta dantzatu. Azken horretaz, dantzatzeaz, Josu Mujika elgoibartarra arduratu da. Koreografiak berak egin ditu, eta bere ardura izan da aktore gazteei erakustea. baina kamera atzean bakarrik ez, aurrean ere aritu da. Izan ere, aktore lanak egin ditu: sotana soinean fraide baten paperean aritu da. Aktoreen aldetik, beharrezkoak ziren hiru alorrak menderatzen zituztenak lortzea ez omen da lan erraza izan; baina pozik dago lortutako emaitzarekin.



Koreografo lanetan ibili zara *Goazen* filman. Nondik sortu zitzaizun aukera?

Pausoka produktoreak egindako lana da, eta nik aurrez *Goenkale* telesailan eta beste gala batzuetan koreografo gisa parte hartu nuenez, deitu egin zidaten lana interesatzen zitzaidan galdetzen; eta, noski, baietza eman nien. Horrelako proiektu batean nola ez parte hartu! Prozesua luzea izan da. Martxoan deitu zida-

ten eta casting prozesua egin dugu. Proba bat Donostian egin genuen, EITBko egoitzan eta han jendea aurkeztu zen; baina, denbora pasa ahala, gero eta jende gehiago enteratzen zen, eta gero Bilbon egin genuen beste proba bat: hiru zapatutan egon ginen han.

Eta horrela, filmeko bederatzi aktoreak aukeratu zenituzten...

Halaxe da, bai. Bi zuzendari egon dira,

eta aktoreen lanetan zuzendari izan den Ainhoa Aierbe, eta ni koreografo lanetan. Lauron lana izan da *Goazen* filmeko bederatzi aktoreak aukeratzea.

Aukeratutako aktoreek, denetik egiten jakin behar zuten...

Hiru gauza behar ziren: ondo dantzatzea, ondo antzeztea eta ondo abestea. Eta hirurak ondo egiten zituen bakar bat aukeratu dugu. Dena ondo egitea oso zaila



zen: beraz, batzuetan aukeratu dira an-
tzele onak, baina ez hain dantzari onak,
eta alderantziz. Baina hori beti gertatzen
da.

Non grabatu duzue?

Udalekua, kanpokoak eta gelak Azpeitiko
seminario batean grabatu dugu. Egokia
izan da, fraideena delako, eta ukitua due-
lako; ondo egokitzen zen. Hernanin, an-
tzokiko situazioak egin genituen. Eta Aia-
ko Harrian eta Hendaian ere grabatu ge-
nuen. Baita Leitzarain ibian ere, paraje
oso polita da gainera.

Zelako esperientzia izan da?

Oso polita. Izugarritzko gogoia zuten gaz-
tetxoek, eta esperientzia polita izan da;
bete egin nau, nahiz eta lan luzea eta go-
gorra izan. Izan ere, oso bizkor ibili gara,
lau aste eta erdian grabatu dugulako, eta
normalean zazpi bat aste behar izaten di-
relako. Baina lortu dugu lana egitea, eta
ni ez naiz ibili estresatuta. Emaizta ikusita,
gustura geratu naiz: gauza batzuk hobetu
nahiko nituzke, baina halakoak gertatzen
dira.

Koreografiak zeuk eginak dira?

Bai, nik egin ditut eta neuk erakutsi diz-
kiet dantzak aktoreei. Euskal musika era-
bili dugu: hasierakoa izan ezik, gainerako
guztiak lehendik merkatuan zeuden abes-
tiak dira. Pelikulara eta istoriora oso on-
do egokitzen dira; horretarako eginak
daudela ematen du. Hala ere, abestiak
egokitu egin dira: adibidez, eurek abestu-
ta daude. Musika batzuk errazagoak edo
egokiagoak dira dantzan egiteko, baina
azkenean guztiakin lortu dugu zerbait. Al-
de horretatik gustura nago.

Klasikoa da gehien lantzen duzun teknika.

Teknika osoena da niretzat. Gero koreo-
grafietan denetik erabiltzen dut, asko
gustatzen zait gainera nahastea. Eta dan-
tzariak teknika edukiz gero, oso ondo

kontrolatzen du gorputza, eta nik eman-
dako indikazioa berehala jarraitzen du;
oso azkarra da. Gazteei oso gogorra egi-
ten zaiela teknika ikastea. Errepikatu egin
behar da, ez dago besterik, eta gaur egun
ez daude ohituta diziplina batera. Eta di-
ziplina behar da aurreratzeko eta lantze-
ko, gorputzarekin batez ere. Oso zorrotza
izan behar da.

**“Gazteei oso gogorra
egiten zaie
teknika ikastea;
ez daude
diziplinara ohituta”**

**Protagonistez gain, jende gehiagok ere
ikasi behar izan ditu zuk erakutsitako
pauzuak...**

Gela batean gertatzen da guztia eta be-
deratzi dira aktoreak eta testua dutenak,
baina inguruan jendea daukate. Noiz-
behinka zerbait esaten dute eta taldean
dantzatzen dute. Eta horiez gain, estrak
ere egon dira: Azpeitian, adibidez, 40 bat
lagun, eta Hernanin beste horrenbeste.
Beraz, dantza batzuk protagonistekin
egin nituen eta beste batzuk jende guztia-
rekin.

**Aktore ere aritu zara filmean, zelan ikusi
duzu zeure burua?**

Fraide lana egin dut: sotana eta guzti.
Oso maisu gogorra naiz, gainera. Baina
ez daukat paper handia. Lehendik ere
Goenkale-n ibilitakoa naiz, eta antzezten

ere bai. Aktorea zarenean zuzendari bat
daukazu eta hark esandakoa egiten duzu;
baina koreografiak-eta zuzentzen egon
naizenez, horrek ematen zidan lana. Be-
raz, fraidearena egitea tokatu zaidanean,
lasai egin dut.

**Sasoi batean neskek dantzan eta mutilek
futbolean egiten zuten. Hori aldatu egin
da?**

Ez. Normalena orain ere, mutilek futbole-
an jotzea da. Fisikoagoa da eta berezkoa
daukate mutilek. Eta neskek dantzarako
beste sentsibilitate bat dute, sena; eta az-
karrago harrapatzen dute mutilek baino.
Mundu horretan, mutilei mila buelta ema-
ten diete. Hala ere, nik badaukat mutil bat
Eibarren, eta oso gustura dabil. Audizioa
egiten aritu ginenean ere, adibidez, futbo-
laren inguruan galdetzen genien sekuen-
tzia batean agertzen delako, eta aurkeztu
ziren mutil guztiek futbola ez zitzaizela
gustatzen esan zuten. Kirola bai, baina
mendira joatea edo antzezoak.

**Euskaraz egin den lehenengo film musi-
katua izan da, berriz egingo al da?**

Oso garestia da. *Tele movie* teknikarekin
filmatu dute orain, hau da, telebistarako
zuzenduta dago. Bigarren bat egongo
den ez dakit, baina asko gustatuko litzai-
dake. Gainera, bigarren partean badakizu
zerk ez duen huts egin, zer zuzendu de-
zakezun... Espainian ere gutxi egiten dira.
Jende konpletoa behar duzu: abestu, an-
tzeztu eta dantzatu ondo egiten dituen,
eta zaila da. Ameriketan, adibidez, ikuski-
zunean aritzen den jendeak denetik egi-
ten du, hainbat estilo kontrolatzen dituz-
te, eta sasoiak daude. Hori niretzat artis-
ta konpletoa izatea da. Niri, abestea gus-
tatuko litzaidake; baina ez dut batere on-
do egiten.

PLAZA BETE **INDAR**

Paul eta Craig Pumphrey anai estatubatuarrek Plaza Handia bete zuten joan zen zapatuan. National Geographic kateak Superhumans saioa grabatu behar zuen Elgoibarren, eta bi anaiak, Euskal Herriko hainbat kirolarirekin batera, bertako herri kirolak egin zituzten. Horrez gain, indar erakustaldia eskaini zuten, eta bertan bildutako guztiak aho zabalik laga zituzten. Hala ere, ez pentsa *super gizon*ek sufritzen ez dutenik... Argazkiak eta bideoa ikusteko: www.elgoiBARREN.net



Craig eta Paul Pumphrey anaiak, harri xafak eskuekin apurtzeko prest Plaza Handian.

Indarra bai, baina, teknika ere, behar-beharrezkoa dela argi geratu zen joan den zapatuan. Plaza Handian herri kirol saio berezia egin zuten. Protagonistak, bi anaia: Craig eta Paul Pumphrey estatubatuarra. Eta eurekin batera Euskal Herriko hainbat herri kirolari. National Geographic kateak *Superhumans* saioa grabatu behar zuen, eta Elgoibar aukeratu zuten horretarako. Eta herritarrek ez zuten huts egin hitzordura. Plaza bete-bete egin zen.

Pumphrey anaiek euren abilezia eta indarra erakutsi zuten trontzan, aizkoran, txingak errotan, eta harriak jasotzen, besteak beste. Ez ziren bat ere gaizki moldatu, eta publikoa alde izan zuten, animoak ematen. Euskal Herriko probak amaituta, bi anaiei txanda iritsi zen. Indartsu profesio-

nalak dira: borroka librean aritu dira, arte martzialetan hainbat sari irabazi dituzte. Craig borroka libreko pisu astunetako munduko txapelduna da, eta beso bakararekin hainbat material hausten munduko errekorra du Paulek.

Egunkaria bezala tolestu

Indarra erakusten lehena Craig izan zen: zartagin bat eskuan hartu eta egunkaria balitz bezala tolestu zuen. Sekulako txaloak jo zituzten ikusleek. Gero, harri xafla multzo handia prestatu eta kolpe bakarrean hautsi zituen Craige; eta gauza bera egin zuten anaia.

Publikoak adi-adi jarraitu zuen ikuskizuna, plazatik mugitu ere egin gabe goizean hasi eta 14:30ak arte. Batzuk aulkietan

eserita, beste batzuk tente; hotzari arre egiten ahal zuten bezala.

Teknika, beharrezkoa

Ondo moldatu ziren estatu batuarrak, baina argi geratu zen indarra bezain garrantzitsua teknika dela; eta praktika. Horregatik, kirol batzuk besteak baino gogorragoak egin zitzaizkien: gogor hasten ziren, indarrak neurtu gabe, eta proba amaierara iristeko arazoak eduki zituzten txingak errotan, adibidez. Leher eginda amaitu zuten lehen buelta, eta ufaka eta ikusleen animoekin, proba amaitzea lortu zuten.

Indar erakustaldia egin zuten kirolariek, baina hori baino gehiago, ikuskizuna izan zen, eta ondo pasatu zuten ikusleek: zahar eta gaztek.



Bi anaiek indar handia duten arren, sufritu ere egin zuten.



Plaza bete egin zen; irudian, Hodei Ezpeleta.



Paul txingak eroaten



Harria jasotzeko prestatzen.



Denetarik egin zuten Pumphrey anaiek, tartean, harriak jaso.



Enborrera igota, aizkoran.



Estatubatuarrak aci, aizkoran zelan egiten den ikusten.



Paul harria jasotzen.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Azaroak 25, Indarkeria Sexistaren aurkako Nazioarteko Eguna

Azaroaren 25a emakumeon kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna izango da. Egutegian azaltzen dira medioetan hainbat berri arazo sexistei buruz. Ezin dugu ahaztu dagoeneko 2008an 5 emakume erail dituztela eta duela hilabete luzeetik beste emakume bat desagerturik dagoela. Herrietako jaietan edo jaien eremuetan ere, emakumeon askatasuna baldintzatu eta eraso sexisten areagotzea gertatzen da. Gazteriaren artean sexuen arteko botere harremanak eta balore patriarkalak iraunarazteaz gain, mutil asko nesken kontrako indarkeria ere balizatzen dute...

Emakumeon kontrako indarkeria, hau da, indarkeria patriarkala, emakumea gizonetakoarekiko menpekotasunean datza eta emakumeok sufritzen dugun indarkeri gisa definitzen dugu. Emakumeok pairatzen dugun indarkeria jendeartearen eremu guztietan sufritzen dugu: eremu pribatuetan, kalean, lan eremuan (lan eremuan gertatzen diren sexu jazarpenen datuak

kezkatzeak dira), polizia etxeetan, eta abar, egiturazkoa den indarkeria pairatzen dugu. Hori guztiagatik ondorioztatu daiteke emakumeon aurkako indarkeria gure herriko arazo sozio-politiko nagusia dela. Indarkeria sexistak gizon eta emakumeon arteko harreman hierarkikoetan du jatorria, jendarte patriarkalaren ondorio zuzena da, alegia.

Horren aurrean, instituzioek 2005ean onartu zuten Berdintasun Legeak emakumeen aurkako indarkeriari buruz hainbat ekimen jasotzen baditu ere, hutsune estrukturalak eta gabezia nabarmenak ditu. Emakumeen aurkako indarkeriari aurre hartzeko dauden lege, protokolo, orden eta akordio interinstituzionalak eta abar, alde batetik ez dute ahalbidetu ez prebentzio integrala ezta babeserako neurri eraginkorrik ere, eta beste alde batetik ez dira praktikan jartzen ari edo antzuak dira. Halaber, legeak jasotzen dituen neurriak aplikatzeko ezintasuna dago, mekanismo behartzaileak ez baitu jasotzen eta aplikazioak dagoen borondate falta agerikoak direlako. Horregatik administrazioek

sustatzen duten itxurakeria salatu beharra dago, indarkeriari aurre egiteko politika integrala oztotpatzeaz gain, mugimendu feministaren borroka eta zehazki indarkeria sexistaren kontrako borroka asimilatzeke saiakera iruzurtiak garatzen ari direlako.

Amaitzeko esan gure herria ez dagoela guzti horretatik kanpo, gurean ere gertatzen baitira eraso sexistak, nahiz eta ederto saiatzen garen ezkutuzten, ezer pasatuko ez balitz bezala. Guztion arazoa den horri guztion artean aurre egin behar diogu. Horregatik egun honetan egingo diren mobilizazioetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Elgoibarko Ezker Abertzaleko emakumeak

ESKERTZA

AURELIO ARENAS ARENAS



2008ko azaroaren 18an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 📠 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Abel Irizar

Polemika sortu du Durangoko azokako kartelak. *Gizon ikusezina*

Azokan lema ipini diote: euskal

txapela, betaurrekoak eta aurikularrak agertzen dira. Jaur-laritzaren Berdintasunerako Erakundeak kartela aldatzeko eskatu du, matxista dela esanez. Kartelak ikusezin bihurtzen ditu emakumeak, eta gizonak kultura-kontsumitzaile eksklusibotzat jotzen omen ditu. Andu Lertxundik aipatu du emakumeak direla gehien irakurtzen dutenak.

Ez da erraza kartela epaitzea, baina nire begiek ere gizonetzko baten aurpegia ikusten dute. Baina niri euskal txapelak ematen dit mina. Zergatik aurkeztu txapela kulturaren eta euskal tradizioaren sinbolo modura? Tipiko eta topiko bihurtu zaigu dagoeneko. Askotan jasan behar izan dugu euskal publizitatean. Telebista txoritxodunak kaiku galantak aurkeztu dizkigu euskal kalitatearen sinbolotzat. Aspertu naiz txapela=euskara binomioarekin. Ez dut gustuko euskara=zaharra+tradizionala. Alde ederrean sinbolo postmodernoak erabiliko bagenitu! Antigoaleko zerbait iraunarazi beharrenean zama erantzi beharrean gaude, Alberto.

“Kultura matxistak oraindik kolonizatuta dauzka gure buruak”

Kultura matxistak oraindik kolonizatuta dauzka gure buruak, eta baita euskal kulturaren estereotipo astunek ere. Gure gizartearen ezintasunen ispilu dira.

Proban jarriko zaitut, Alberto, asmakizun honekin: “Aita-semeak auto-istripua izan dute eta aita hil egin da. Semea, aldiz, larri eraman dute ospitalera. Ebakuntza-gelara eraman eta zirujauak esan du: ‘Ezin dut ebakuntza egin, hau nire semea da’. Nola liteke?”



Alberto Agirreazaldegi

Kartel horretan nik ikusten dudana bada, horixe dela gizon ikusezina. Joxe Miel Barandiaranen irudia datorkit begien aurrera kartel horri begiratzean.

Txapela eta betaurrekoak bereak direla iruditzen zait. Aurikularrekin ikustea egiten zait arraroena, baina betaurrekoen soka dela dirudi. Joxe Miel ikusezina bihurtuta ere beti izango da azokako partaide. Bere liburuak aspaldi ikusi nituen Durangoko azokan salgai eta, bestalde, ezin dut irudikatu Joxe Miel esku artean libururik gabe. Baina gatozen harira. Kontua da lelo horren azpian gizona azaltzen dela. Normala, gizonak sortutako kartela da eta gizonok ez dugu ikusten besterik gizontasunetik haratago. Neska politik eta ederrak sartzen ditugu publizitatean erreklamo bezala. Emakumeak objektu moduan ikusten ditugu eta hemendik ihes egin nahi dugunean, gizonak bakarrik ikusten ditugu.

“Proban jarri nauzu, baina ez naiz erori matxistak harrapatzeko sarean”

Tradizio kontuan ez dut uste zuzen-zuzen zabiltzanik, Abel. Euskal txapela aspaldi desagertu zen buruetatik eta asko ez zaio falta kultura eta kirol gertaeretatik desagertzeko. Oraindik txapelketa deitzen diegu bertso lehiaketari edo txirindulari probari eta sariak ematerakoan txapela ematen zaie irabazleei (emakume zein gizon), baina balio sinboliko hori kenduta ez da beste inon ikusten txapelik. Eta irudimen pixka bat daukaten antolatzaileak iristen direnean laster kenduko dituzte sarietatik ere.

Ai, Abel, proban jarri nauzu baina ez naiz erori matxistak harrapatzeko sarean. Garai batean eror nintekeen baina, egun zirujauen artean ere badira emakumeak. Berehala konturatu naiz zirujaua nire alaba izan zitekeela. Ez ahal zaio gertatuko sekula halakorik!



Elgoibarko Udala



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Euskal Herria izenarekin ez bada, ez dutela jokatu adierazi dute 165 futbol jokalarik.

‘Euskadi’ ala ‘Euskal Herria’ da selekzioentzat izen egokia?



Jose Luis Niebla
34 urte, muntatzailea

Berdin zait ‘Euskadi’ ala ‘Euskal Herria’ izan. Niri futbola gustatzen zait, baina izena ez zait inporta. Gustura ikusten ditut selekzioaren partidak. Ez naiz sekula zuzenean ikustera joan, baina telebistaz jarraitzen ditut. Urtean behin bada ere, polita da jokatzea.



Adolfo Godoy
28 urte, banatzailea

Ez naiz hemengoa, baina ‘Euskadi’ izena lagako nuke. Nik beti horrela entzun dut, eta horrekin identifikatzen dut selekzioa. Azken batean izen bat besterik ez da, horren atzean dagoen oinarriari eusten badio, ez dauka bestelako garrantzirik.



Elixabet Baskaran
48 urte, erizain laguntzailea

Ez dakit zer esan. Zazpi probintziak ordezkatzeko dituen izena izan behar du, horretan jarri behar dugu ados. *Gora Euskadi askatuta!* ere esaten dugu, eta erabili izan dugu zazpi probintziak ordezkatzeko. Gai hori eztabaidarako beste kontu bat dela iruditzen zait.



Iker Froilan
33 urte, elektronikoa

‘Euskal Herria’, dudarik gabe. ‘Euskadi’ EAJ-PNVko euskaldunena bakarrik da, eta hor ez gaude ordezkatuta euskaldun guztiak. ‘Euskal Herria’ hitzaren barruan, ordea, zazpi probintziak sartzen dira, eta euskaldun guztiak batzen gaituen hitza da.

V. URTEURRENA

LOREA ETXABE AZKUE



*Edur zuritxan hazitxako
lore gorrixa ziñan.
Urtu eraitxen zendun
inguruko hotza,
eta bedarra hazi erain.*

*Ez dogu gehixao
zure berua igarriko,
baña hementxe gerauko da
zure arnasan aztarnia,
botatako sustraixen gañian.*

Zure familia eta lagunak

2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela. V. urteurreneko meza zapatuan, azaroaren 22an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokan. Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.





Madalako petrila ez lukete kendu behar: “Pena handia eman digu Madalako petrila kentzeak. Badakigu obrak egin eta ingurunea berritzeko asmoa daukela Udalak, baina petrila bertan laga beharko zuten. Horrek ematen zion Madalako parkeari pertsonalitatea, ingurune horretako ikurra zen. Gainera, eguraldi onarekin eserita egoteko leku aproposa zen. Berandu izango da beharbada, baina Udalak oraindik proiektuan aldaketak egiteko aukerarik izango balu, eskertuko genuke petrila berria egitea”.

Umeen igerilekua beti okupatuta dago: “Umearekin Kiroldegira joaten naizen bakoitzean, igerileku txikia okupatuta egoten da ikastaroekin, eta ezin izaten gara bertan sartu. Ikastaro mordoak ematen dira, eta hori ondo dago, baina ez lukete igerileku guztia hartu behar. Tarte txiki bat umeekin egoteko laga beharko lukete, edo umeak eskolan dauden orduak aprobetxatu daitezke ikastaroak egiteko, eta gero libre laga igerileku txikia. Guk ere urte osoko kuota ordaintzen dugu, baina ezin izaten dugu disfrutatu. Gainera, datorren urterako kuota igo egingo dute, eta, nire ustez, zerbitzua ere hobetu egin beharko litzateke”.



Ermuaranbide kaleko espaloia oso ondo geratu da: “Berandu bada ere, azkenean konpondu dute Ermuaranbide kaleko espaloia, eta ondo geratu da benetan. Jende asko joaten da Sallobentera pasiatzera, eta beharrezkoa zen ingurune hori txukuntzea. Gainera, Basarte auzora edo IMH-ra joateko bidea ere erraztu egin dute. Egia esanda, ingurune hori guztia oso ondo geratu da, espaloiri eta eskailera mekanikoei esker”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barrene@eigoibarkoizarra.com 943-74 41 12



20% deskontua haur eta gazteentzako logeletan




Pedro Muguruza Etorbidea 5, 943743245

Gaurtik aurrera salgai dago Elgoibarko Izarrak prestatu duen ‘Elgoibar Koloretan’ mahai-jokoa

Ondo pasatzea eta gure herria hobeto ezagutzea dira jokoaren bi helburuak

Elgoibar Koloretan ondo pasatze-ko eta gure herria hobeto ezagutze-ko mahai-jokoa da, eta ia urtebeteko lanaren ondoren, gaur jarri du salgai Elgoibarko Izarrak. 32 euroren truke (26 euro Elgoibarko Izarrako bazkideentzat), mahai-joko original hau erosi ahal izango dute elgoibartarrek.

Partxis eta tribialaren arteko jokoa da. Biak hartu eta joko berria asmatu du Elgoibarko Izarrak. Partxisaren ezaugarriak daude mahai-jokoaren oinarrian, baina, tribialean moduan, galderak asmatu behar dira aurrera egiteko. 900 galdera dauzka mahai-jokoak, 150 fitxatan banatuta, eta ia galdera guztiek hiru erantzun dauzkate aukeraren. Galdera guztiak Elgoibarri buruzkoak dira, beraz, gure herria ezagutzen duenak aukera handiagoa izango du irabazteko.

Herriko lau tokitan salgai

Gaurtik aurrera, lau toki hauetan izango da salgai mahai-jokoa: Elgoibarko

Izarra kultur elkartearen, BARREN astekarriaren, Pitzintxun eta Ize liburu dendan. Prezioa 32 eurokoa da. Elgoibarko Izarrako bazkideek 26 euroren truke jaso ahal izango dute mahai-jokoa, baina Elgoibarko Izarraren Ubitarteko egoitzan edo BARRENen erosi beharko dute.

Jende askoren lana

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak egin du mahai-jokoa, eta berea da, baina jende askok parte hartu du lan honetan. Galderak prestatzen, adibidez, 35 lagun inguruk jardun dute. Eta proiektua diruz lagundu dutenak ere asko izan dira. Erakundeek dagokienez, Elgoibarko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundia- ren laguntza jaso du proiektuak. Dirulaguntza pribatuari dagokionez, berriz, Danobat, Etxe-tar, Etxepe eta Gorosabel enpresen dirulaguntzaz gain, Euskadiko Kutxaren eta Txarriduna Hotelaren dirulaguntza ere jaso du Elgoibarko Izarrak. Izan ere, aurrekontua ez da makala izan: 25.000 euro ingurukoa.



Elgoibarko Izarrako arduradunek eskerrak eman nahi dizkie proiektuan parte hartu duten guztiei; bai mahai-jokoa egin ten lagundu dutenei eta baita proiektua finantzatzen lagundu dutenei ere.

Aurkezpena hilaren 27an

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak datorren egunean, azaroak 27, egingo du mahai-jokoaren aurkezpen publikoa Musika Eskolako auditorioan, arratsaldeko 19:00etan.

Eraso sexisten kontrako nazioarteko eguna dela-eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu Udalak



Bittori Zabala zinegotzia, Alfredo Etxeberria alkatea eta Nerea Altxu berdintasun teknikaria.

Azaroaren 25ean eraso sexisten kontrakonazioarteko eguna dela-eta, Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu: hasteko, udal plenoa hilaren 25ean egingo da, Berdin Sareak (Udal sareen erakunde) egindako adierazpen instituzionala onartzeko. Horren ostean, 19:30ean, kontzentrazioa egingo da Plaza Handian, “Emakumeenganako indarkeriari ez” lemapean, eta aldi berean, informazio mahai bat jarriko da bertan, Emakunderen *Gizonduz* egitasmoaren alde sinatu nahi dutenentzako. Hilaren 28an *Jokoaut* antzezlanaren aurkeztuko du Pikor teatroak Herriko Antzokian. Bi saio izango dira, goizez ikastetxeentzat eta gauean herritar guztientzat. Bulling fenomenoaren eta gizartean indarkeria nola gertatzen den azaltzen dira antzezlan horretan. Azkenik, abenduaren erdialdean “Gizonez- kook berdintasunaren aurrean, zer?” mahaingurua izango da Kultur Etxean, Luis Cerron irakasle eta psikopedagogoarekin eta Xabier Odriozola antropologoarekin.

Irudia **Pankarta merkatu plazan**



Modu misteriotsuan idatzita dagoen pankarta erraldoia zintzilikatu zuten asteburuan merkatu plazako eraikinetik Gazte Asanbladakoek. Ez daude pozik kalean kartelak kentzeko jarrerarekin: "Kaixo lagun maitea; ezin dozu imajinatu zelan berotzen naizen zu kartelak kentzen ikustean. Asteartero eta ostiralero amesten dit zurekin. Zu prezintatu nahi zintuzket nire zelo potoloarekin. Patxo handi bat". Pankarta martitzenean kendu zuten.

Izena **Etxe-Tar**

Eusko Jaurlaritzak 31 milioi euroko diru-laguntza emango die hamar industria proiektuari, eta horien artean, Elgoibarko Etxe-Tar enpresa dago. Bereziki, energia eolikoan tamaina handiko osagaiak lantzen ditu enpresa elgoibartarrak. 26,04 milioi euroko inbertsioa egingo du, eta 77 lanpostu berri sortuko ditu. Jaurlaritzak 1,81 milioi euroko laguntza emango dio. Laguntzak jasoko dituzten konpainiek, guztira, ia 650 milioi euroko inbertsioak agindu dituzte, eta guztien artean, 2.500 lanpostu sortzea aurreikusi dute 2011. urterako.

Argazkia **Onddo erraldoia**

Begira zelako pozik dauden Sugar Alberdi eta Arhane Cebrian mendaroarrak mendian topatutako onddo erraldoiarekin! Behin perretxikotara joan eta horrelako altxorarekin itzuli ziren etxera. Afari-merienda ederra egin zutela kontatu digute. Hori bai, perretxikoa non topatu zuten ez digute kontatu, hori sekretua da-eta.



Jubilatuena astea izango da azaroaren 25etik 30era

Jubilatuena biltokiak antolatuta, jubilatuena astea izango da azaroaren 25etik 30era. Besteak beste, azaroaren 25ean txokolate jana izango da, hilaren 26an gabonetako 40 otarre zozketatuko dituzte eta azaroaren 27an 80 urtetik gorakoentzako bazkaria izango da. Asteburuari begira, kina berezia izango da zapatuan (azaroak 29), eta domekan jubilatuentzako meza nagusia izango da San Bartolome parrokiari. Jubilatuena astea Eguren Orkestraren dantzaldiarekin amaituko da, azaroaren 30ean.

Kotxe karabana egingo dute azaroaren 26an

LAB sindikatuko ordezkariak deituta, metal alorreko langileak kalera irtengo dira azaroaren 26an, sektorea jasaten ari den egoera salatzeko. Hainbat enpresatan langileak kaleratzen hasi dira, eta horren kontra auto karabana egingo dute. Itziariko industriagunean hasiko da karabana, Mupem enpresa aurrean. Mutriku, Deba, Mendaro, Elgoibar eta Eibartik pasatuko da. Ondoren, Eibarko udaletxe aurrean kontzentrazioa izango da.

Sumendiak liburutegian

Ozpina, ontzi garbigailua eta bikarbonato sodikoa nahastuta sumendiak egiten aritu dira asteon herriko txikiak liburutegian. Mad Science, Locos por la ciencia taldekoek lagunduta, esperimentuak egiten jardun dute 25 lagun inguruk taldeetan banatuta.



Gure berbak

Aditza (33): Ahalera 3

Garai baten bestela izango ziran gauzak, baiña gaur egun *EGIN* errua darue ahalerako aditz guztiak, bai aditz trantsitibuak, bai intrantsitibuak:

- ♦ Intrantsitibuak: *etorri neike, ibili neike..*
- ♦ Trantsitibuak: *lana egin neike, liburu erosi neike...*

Bestalde, gaur egun aditz berri samar asko aurkitzen doguz ahalerazko formetan; analogiaz sortzen dira, eta, ekonomikuagua dalako-edo, arrakasta haundixa dauke, esan bezela, gaztien artian. *LEIKE* formia hartzen da ahaleraren errotzat, eta horri gehitzen jakoz kasuan kasuko aditz-formak: *-da, -dot, -dizu* eta abar. Honelako “enjendrotxuak” sortzen dira “ekuaizio” horretatik:

- ♦ *Ama etorri leikedu.*
- ♦ *Liburu hori erosi leikedot.*
- ♦ *Eman leikedizut diru pixka bat.*

Horrek erabili baiño hobeto, gure tradiziara jotzia. Hona adibide batzuk:

Gure aittak zera eskatu, jornal gehixu aber eman leikién, estu zabilleta ta, eta nagusixak kontestau zion ezetz, “gure artikululu horrek konpetentzia haundixa dauka, eta ezin neike”.

–Eta, zeu manejatzen? –Ez, manejavu neikién, baiña ezta kitt artietan karneta eukiko naban.

Oiñ, bigarren junaldixan, gu Burgosen egon giñan, Burgosetik aurrera. Eta handikan eziñ etorri izeten giñan, urruti tta...

Pieza haura gabe ezin zeikién juan garai haretako automobillak.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1989

Udal Musika Bandaren arxiboko erretratu zahar bat da aste honetakoa. 1989. urteko martxoaren 19an ateratako argazkia da. Bihar, azaroak 22, Santa Zezeilia eguna izango denez, egokia iruditu zaigu erretratu hau argitaratzea. Orduan, 41 musikari inguruk osatzen zuten Udal Musika Banda, eta gaur egun 50 inguru dira. Ikus ditzagun zein diren argazkiko musikariak:

Goian, ezkerretik eskumara: M.A. Arozena, J.M. Saez, V. Zubiaurre, J. Saez, I. Aurrekoetxea, J.M. Kortaberria, J.M. Martinez, J. Del Valle, J.M. Gabilondo, I. Zabala, K. Galdona, L. Kortabitarte, J. Izagirre, R. Gonzalez, A. Larrea (†) A. Arriola.

Erdian: P. Sanchez, I. Odriozola, A. Diego, D. Tejero, J.A. Zubiaurre (†) I. Cearsolo, L.M. Zubiaurre, P. Zapata, I. Zabala, U. Cuesta, C. Ansola, J. Ansola, I. Aranberri, A. Iranzo, R. Gonzalez.

Eserita: P. Regil, F. Azpiazu, X. Cearsolo, A. Azpiazu, T. Mujika, J.A. Osoro (Zuzendaria), L. Gorostiza, J.M. Ruiz-Poveda, G. Mujika, R. Gorriti.



ESKERTZA

ANGEL GARATE ALBIZU

2008ko azaroaren 12an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




motor

gehigarria '08

Gasolina, diesela, hibridoa ala erregai alternatiboak? Autoari moldaketak egin ala dagoen moduan laga? Auto berria erosi ala bigarren esku-koa? Zer da VIVE plan berria? Auto bat aukeratzekoan hamaika zalantza izaten ditugu eta ez da erraza egokiena zein den erabakitzea.

Motor gehigarri honetan gaur egun puri-purian dauden gaiak jorratuko ditugu, ez galdu detailerik!



*Zatoz gure auto eta motorren
aseguru eskaintza zabala ezagutzera*



MAPFRE



San Frantzisko, 40 - Tel: 943 74 05 82 / 943 74 14 04 - Faxa: 943 74 17 07

E-posta: patxizo@mapfre.com



GASOLINA ALA DIESELA?

Gasolioa sekula baino garestiago dago, eta lehen kontuak turbodieselaren alde irteten baziren ere, orain hori ez dago hain argi; hala ere, nagusitasuna edukitzen jarraitzen du. Autoa erosterakoan gasolina eta diesela- ren artean ezin erabakita egonez gero, argi laga behar da zer erabilera emango zaion. Izan ere, depositua betetzean dirua aurrez- tuko dugulakoan, normala izaten da autoagatik gehiago ordaint- zea. Auto bera gasolioa ala gasolina izan ezberdina da, eta bien arteko aldea zein den ateratzea oso erraza da: lehenik eta behin modelo bakoitzak kilometroko duen kontsumoa kalkulatu behar da, eta horri erregaiaren kostua bidertu behar zaio eta zati 100 egin. Hortik ateratako emaitza aukera bien aukeren arteko prezio diferentziarekin zatitu behar da.

Auto erabiltzaile guztiek ez dute kilometro kopuru bera egiten urtean zehar, baina, batez beste, urtean 15.000 kilometro egiten dira. Beste faktore batzuk ere kontuan eduki behar dira: batzuk gasolina nahiago dute erreboluzio altuagoak lortzen direlako, edo azelerazioa apur bat hobea delako eta zarata gutxiago ateratzen duelako. Edo turbodiesela nahiago dute autonomia eta reprisea- gatik, hondakin-baloreagatik eta mekanika aldetik gehiago irauten dutelako.

Gasolina eta diesela oso eraginkorrak dira, baina eraginkorta- sun horrek prezioa du: atmosfera kutsatzen duten CO₂ eta beste gas eta partikulak igortzen dituzte, eta epe luzera eremu klimati- koan eragina izan dezake.

Aurrera pauso hori teknologia hibridoaren sorkuntzarekin gau- zatu da. Teknologia berri hori edozein erregairekin aplikatu daiteke (gasolina, diesel edo erregai alternatiboak). Hibridoak isurtze gut- xiago sortzeaz gain, erregaiaren kontsumoa ere murrizten dute. Gainera, guztiz isilak dira modu elektrikoan funtzionatzen dutene- an eta jarrera harrigarria eskaintzen dute gidatzean.



LAGUNMOBIL

C A R R O C E R I A S

Olaso Poligonoa • Tel.: 943 74 44 30 • Faxa: 943 74 44 36 • ELGOIBAR

Lantalde profesionala
Ardura handiz egindako
konponketak 1.000 m²-ko
instalazioetan

ARRAÑAGA A U T O E S K O L A

Tel: 943 74 10 11

- 🚗 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 🚗 ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- 🚗 IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik
eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**

Batoz informazio eske!



TUNING AUTOAK

Tuning arloan espezializatutako tailerrek edo mekanikari trebeek autoak tuneatzen dituzte. Azken batean, prestatu egiten dituzte, apaindu: autoaren egoera arrunta eta ohikoa zeharo aldatzen dute, imaginatu ezin daitekeen luxuzko detaileen bidez. Tuningaren mundua oso zabala da, eta garestia. Azken aldian, gainera, zailtasunak agertu dira, lege berriak direla-eta. Autoa tuneatzeko eman beharreko pausoak oso arruntak dira. Gehien gustatzen zaizunarekin hasi zaitezke; edo ahal duzunarekin, arazoa artikuluen prezioa da-eta, batez ere homologatuak direnean edo marka jakin bateko originalak direnean. Garrantzitsua da pieza guztiak homologatuak izatea, bestela lbigailuen Azterketa Teknikoa pasa behar duzun bakoitzean piezak kendu eta gero berriz jarri beharko dizkiozu. Zure autora tuneatzeko jarraitu beharreko pausoak definituko ditugu:

- **Markako lllantak**, prezio guztietakoak, kalitatea, aukera... Ikusienak ATP, Mille, Miglia, BBS, Braid, Ronal, Kosei eta Lahore dira. Oso modan daude kromatuak: autoak deigarriago egiten dituzte, distira handia dute; baina iraupen gutxiago dutenez, albo batera gelditzen ari dira.
- **Amortiguatzaileak**, espiralak edo suspensio aldaketa.
- **Erlaitz edo maskarak** jartzea eta atzeko argiak aldatzea, Lexus edo koloreetako batzuen bidez.
- **Kristal tindatuak**. Lehen beltzak zeuden bakarrik, baina orain kolore gama zabala dago.
- **Amortiguatzaileak**. Leku guztietan detaile apaingarriak jarri: gasolinaren tapa pintatu, barrualdea eta kanpoaldea margotu aerograftien bidez.
- Amortiguatzaileak, Spoiler edo aleroiak jarri, autoko ateen azpian formazko piezak ezarri, aurrean eta atzean babeskiak ezarri.
- **Neozko argiak**: barruan, azpian, kristalak garbitzeko ura botatzen duten motortxoetan...
- **Aire hartunea** kapotaren gainean. Motorra hozten du eta, bide batez, itxura edertu.
- Forma eta kolore guztietako **tuning pegatinak**.
- Potentzia emango dion **ihes-hodi kromatua**, Remus edo artisau era-koak izaten dira. Batak zein besteak buztana izaten dute, edertzeko. Batez ere bi ahokoak ezartzen zaizkie.
- **Kirol-bolantea**: txikiagoa erraz eusteko, eta autoko barnealdearekin konbinatuz.
- Koadroaren **esfera apaingarrien** aldaketa. Beltz-beltzak zein kolore eta forma guztietakoak.
- **Abiadura-palankaren heldulekuak** aluminiozkoa izan behar du, esku-balaztarekin eta bere telarekin bat datorrena.
- **Audioa** beti ahalik eta modernoena, neozko argiarekin. Autoirratik car-audio instalakuntzaren osagairik garrantzitsuena izan behar du.
- **Potentzia txipak**. 600 euro balio dute eta 20 zaldi gehiago ematen dizkiote autoari. Arazotxo bat du: gaizki jarri ezker autoaren funtzionamendua hautsi dezake, autoari berari ezartzen baitaia.
- **Pedaletako txapen aldaketa**, markakoak jartzeko.
- **Gorputzera egokitzen diren eserlekuak** (automatizatuak) eta ospetsuenak Recaro markakoak dira.

Garaje EGAÑA **Automobil konpoketa**



Pedro Muguruza etorbidea, 18 behea
Tailerreko tel.: 943 740 198
Tel. partikularra: 943 743 395 / 943 742 018
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Grua-Karrozeria URASANDI, S.L.



24 orduz Grua Zerbitzua
608 67 61 62

Er posta: carrocerias@urasandi.com • Web orria: www.urasandi.com
Tel.: 943 74 34 00-943 74 44 69
Faxa: 943 74 25 98 • Deba Kalea, 14 behea

LAGUN ARO
Grupo Caja Laboral

- » AUTOMOBILA
- » ETXEA
- » DENDA
- » BIZITZA / ISTRIPUAK
- » AURREZKIA
- » OSASUNA
- » AUTONOMOEN EGUNEROKO BAJAK

www.seguros lagunaro.com
Laguntel 902 380 838

Santa Ana, 5 - 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 747 370 - Faxa: 943 741 051
ygarcia@seguros lagunaro.com



Espace Emotion. 2.0 DCI. 150 CV.

Aire girotua. Ateak ixteko sistema zentralizatua. Beira igogailu elektrikoa. Matrikulazio data: 2007/12/18 Km0 P.S.P: 28.300 €



Grand Modus, Dynamique berria. 1.5DCI.

Aire klimatizagailua. ASR+ESP. Irrati CD-a. Airbag. Beira-igogailu elektrikoa. Matrikulazio data: 2008/08/19. 3.000Km. P.S.P: 16.300 €



Master furgoi luzea. 2.5

Goratu. 2 Airbag. Ate ixte Beira igogailu elektrikoa. 70 Matrikulazio data: 2006/08/



Grand Scenic Expression. 1.9 DCI. 130 CV.

Aire klimatizagailua. ASR+ESP. Irrati CDa. Airbaga. Beira-igogailu elektrikoa. Matrikulazio data: 2007/03/06. 10.300Km. P.S.P: 18.500 €



Kangoo, Express Confort.1.5 dci. 65CV.

Beira igogailu elektrikoa. Ateak ixteko sistema-zentralizatua. Atzeko atea kristalduna. Matrikulazio data: 2005/06/15. 126.000Km. P.S.P: 8.300 €



Master Combi 6 2.5 D.CI.

(aldamenetan kristalduna) G sistema zentralizatua. Beira Km. Matrikulazio data: 200



Traffic Combi 6. 1.9 DCI. 100CV.

Aire egokitua. Beira-igogailu zentralizatua. Irrati CDa. Airbaga. Ateak ixteko sistema zentralizatua. Matrikulazio data: 2004/06/22. 48.000 Km. P.S.P: 14.500 €



Scenic lux privilege. 2.0DCI. 1.5 CV.

Airbaga. Aire klimatizagailua. ABS.Irrati CDa. Beira-igailu zentralizatua. Matrikulazio data: 2007/01/31. Km0. P.S.P: 19.500 €



Autoberri, S.L (Elgoibar)
 Olaso poligonoa, 17
 20870 Elgoibar
 Telf: 943 742 755



DCI. 100CV
 sistema zentralizatua.
 73.000 Km.
 08. P.S.P: 13.500 €



Opel Corsa. Enjoy. 1.4 90CV
 3 ate. Airbag. Irrati CDa.
 Matrikulazio data: 2007/05/03. 20.000Km
 P.S.P: 10.990 €



Opel Astra. 1.9 CDTI Cosmo.
 5 ate. Airbaga. Irrati CDa.
 Matrikulazio data: 2005/04/15. 77.000Km.
 P.S.P: 13.500 €



100CV
 oratua. 2 airbag. Ixteko
 gogailu elektrikoa. 73.000
 /03/16. P.S.P: 14.500 €



Citroen C5 Exclusive. 2.0 16V 138CV
 Aire-egokitua. Airbaga. Beira-igogailu zentralizatua.
 Irrati CDa. Matrikulazio data: 2002/07/26.
 P.S.P: 6.000 €



Seat Ibiza. 1.9 TDI. Sport Rider. 3p
 Airbaga. Beira igogailu elektrikoa. Irrati CDa. Aire-giro-
 tua. Matrikulazio data: 2005/01/26. 79.500 Km.
 P.S.P: 9.300 €



Laguna familiarra, Privilege.1.9 DCI 120CV
 ABS. 4 airbag. Aire klimatizagailua. Laino-argiak. Irrati CDa.
 Matrikulazio data:2003/05/30. 118.000 Km.
 P.S.P: 12.000 €



Laguna familiarra, Privilege. 1.9 DCI. 120 CV.
 Airbaga. Aire klimatizagailua. ABS. Irrati CDa. Beira igogailu
 zentralizatua. Matrikulazio data: 2003/05/30. 110.000Km.
 P.S.P: 12.000 €

CHEVROLET CRUZE

Laureteko *coupe* honen diseinu dinamikoak konpaktu estandarrak handitzen ditu baliozko segmentuan. 2009ko martxotik aurrera salgai, Cruze modeloak berlina tradizionalaren berrinterpretazioa dakar. Diseinu berritzailearen elementuetako batzuk honakoak dira: bi babeslekuko parrilla, sorbalda linea ahurra eta bidaiari-leku banatu eta piloto zein kopilotoarentzako espazio banandu eta inguratzaila.



SAAB 9-3XVD

Saab XWD sistema, bere klaseko liderra, baita Motor Saab Turbo 2.0 ezaguna ere. Saab 2009 gamako 9-3 Sport Sedan eta Sport Hatch-ek orain XWD trakzio osoaren sistema du aukeran orain, 2.0 l turboko 210 CVerako, Aero gamako bertsio altuenaz gain, 280CVko 2,8 V6 turbo motorarekin. Atzeko diferentzial Elsa autoblokantea eta txasis deportiboagoa ere baditu aukeran.



OPEL

IBILGAILU KOMERTZIAL ARINAK

Testuinguru guztietara moldatzen den auto aldakor eta multifuntzionala, bai urbanoa, baita extraurbanoa ere. Gaur egungo ibilgailu komertzialen bidez sekulako eroso bidaia eta lan egiten da. Ibilgailu komertzial batek duen karga ahalmena du, eta turismo batek dituen prestazio eta erosotasunak ditu. Izan ere, orain dela urte gutxira arteko furgoiakin inolako zerikusirik ez du. Lanerako tresna gisa erabili daiteke lan egunetan eta aisialdirako asteburuetan. Gero eta jende gazte gehiagok etxebizitza bat erosteko zailtasuna duenez, asteburuetan etxea bizkarrean eramaten dute ibilgailuon edukierari esker.



IBILGAILU BAKOITZA PERTSONA EZINDUAREN BEHAR

ESPEZIFIKOETARA MOLDATZEN DA, GIDARI ZEIN BIDAIRI IZAN ARREN

Ezintasun fisikoak duten pertsonak ere gidatzen dute, jakina, horretarako oztopoei aurre egin behar badiete ere. Horietako bat ibilgailua moldatu beharra izaten da.

Gehien eskatutako moldaerak bolanteari instalatzen zaizkion gida mekanismoak dira, auto tradizionalak dituzten pedalk ordezkatzen dituztenak; azeleragailu, balazta eta enbrageari eskuarekin eragiteko. Halaber, kasu horietan abiadura-aldagailu automatikoa aukeratzen da.

Gurpil-aulkietan joaten diren eta bertatik mugitu ezin diren pertsonen kasuan, kaxeatua egiteko aukera dago, eserlekuak beharrezko arabera mugitzeko. Horrela, ez du zertan autoaren atzealdean joan elbarrituak, kopilotuaren lekuan joan daitekeelako eta baita gidariaren lekuan ere, bere aulkitik mugitu gabe.

**GIAUTO OPEL**

ELGOIBAR - BERGARA - ARRASATE
OLABERRIA - ARKETA (Tolosa)
Tel. 902 345 123
www.giauto.es
cliente@giauto.es

**MENDAUTO HYUNDAI**

ELGOIBAR - DONOSTIA - IRUN
LAGARTE - TOLOSA - LAGARTE
Tel. 902 345 225
www.mendauto.com
hyundai@mendauto.com

**GIAUTO CHEVROLET**

ELGOIBAR - OLABERRIA
Tel. 902 345 225
www.ned-chevrolet.com
giatocliente@giauto.es

**EUSKOAUTO TOYOTA**

PASAA - ELGOIBAR
BERGARA - OLABERRIA
Tel. 902 345 345
www.euskoautotoyota.es
ve.euskoauto@toyota.es

**GIAUTO SAAB**

SFRONDA
Tel. 943 763 347
www.giauto.rentaeb.com
cliente@giauto.es

**KM0 - SEMINUEVOS**

PASAA - ELGOIBAR
Tel. 902 345 123
www.giauto.es
vot@giauto.es

OPEL INSIGNIA ECOFLEXGABEKO EKONOMIA

KONPROMISORIK GABEKO EKONOMIA

Insignia Ecoflex berriak sekulako ingurugiro errespetua eskaintzen du, inolako konpromisorik gabe. Potentzia eta gidatzeko dibertsioa alderatzen ditu, eraginkortasun handiz. Opelen ecoFLEX gamak 2.0 litro kubikajeko motor turbodiesela du eta 160CV/118KWeko potentziala.

ECOFLEX MODELOKO GAMA ZABALA

Gradualki handitzen ari da Opelek ecoFLEXekin duen ekimena, ingurugiroarekin bat datorrena, bolumen handiko gama guztietan.

GAS NATURALA

EcoFLEX gaman gas naturalarekin propulsiatutako autoak daude, *monovalenteplus* kontzeptuarekin. Gas naturalarekin propulsiatutako Opel EcoFLEX ibilgailu ekonomikoek sekulako ingurugiro ezaugarriak eskaintzen dituzte. Zafira eta Combo EcoFLEXak (gas natural konprimatuaren bidez propulsiatuak) ia ez dute kedar partikularik ekoizten, gasolinako bere baliokideak baino ia %20 gutxiago isurtzen dute eta beste isurketa kutsatzaileek baino %80 gutxiago kutsatzea lortzen dute.

OPEL INSIGNIA SEGURTASUN HANDIAGOA

Opel Insigniak segurtasun aktibo eta pasibo alde-
tik berritasun teknologiko ugari aurkezten ditu. Azpimarragarriena AFL argiztaketa moldatzailea da: argiaren doitze automatikoa, gidatzeko moduaren eta ikuspenaren arabera. Sistema honek azkartasuna eta zehaztasuna ditu, gidatzerakoan lasai eta seguru joateko. Hurrengo urte hasieran plazaratuko dute.



**AFLAREKIN HORNITUTAKO OPEL INSIGNIAK
GAUEKO LED ARGIAK ERE ERAMANGO DITU.
H7 ARGI HALOGENO OROKORRAK BAINO
30 ALDIZ ERAGINKORRAGOAK DIRA.**

MODELOA	POTENTZIA MAX.	KONTSUMO KOBINATUA	CO ₂ ISURKETAK
CORSA 1.3 CDTI ECO FLEX	75 CV / 55 K/H	4.5 L / 100 km	119 g / km
MERIVA 1.3 CDTI ECO FLEX	75 CV / 55 K/H	5.0 L / 100 km	135 g / km
ASTRA 1.3 CDTI ECO FLEX	90 CV / 66 K/H	5.1 L / 100 km	137 g / km
ZAIRA 1.6C CNG ECO FLEX	94 CV / 69 K/H	5.0 kg / 100* km	138 g / km
COMBO 1.6 CNG ECO FLEX	94 CV / 69 K/H	4.9 kg / 100* km	133 g / km

* Zifrak Test G20ko balioak islatzen ditu, EU/1999/100 arautegiaren arabera.

MONOVALENTEPLUS KONTZEPТУ BERRITZAILERARI ESKER GAS NATURALAREN BIDEZ DABILTZAN IBILGAILUEN ERAGINKORTASUNA BERMATZEN DA ETA BAITA EGUNERO AUTOA ERABILTZEAREN ERE, INOLAKO MURRIZKETARIK GABE. IDEIA HORRI ESKER, OPEL IZAN ZEN GAS NATURALAREKIN FUNTZIONATZEN ZUEN MOTOR OPTIMIZATU BAT FABRIKATZEN LEHENA ETA, ALDI BEREAN, GASOLINAREKIN FUNTZIONATU DEZAKEENA. MOTORROK PISTOI ESPEZIFIKOEKIN DABILTZA, HORIEK BALBULAN ETA BERE ESERLEKUAN ERANTSIK DAUDE. BESTALDE, GAS NATURALERAKO ETA GASOLINARAKO BANANDURIK DAUDEN INJEKTOREEKIN ERE FUNTZIONATZEN DUTE.

Okasioko autoak eta merkataritzako ibilgailuak erosteko laguntzak emango ditu VIVE plan berriak

VIVE (Ibilgailu berritzailea-Ibilgailu ekologikoa) plan berriak autoa erosteko balio du. Horren bidez, laguntzak eskuratu daitezke bost urte baino gutxiagoko okasioko automobilak edo merkataritzarako ibilgailu arinak erosiz gero. Era berean, auto berria erostearren, zaharra txatarratara botatzeko antzinatea hamar urtera jaitsi du plan berriak

Ministro-kontseiluak aste honetan bertan onartu du VIVE plan berria. Onartutako berrikuntzen artean, ibilgailuaren gehieneko prezioa ere aldatu du, hau da, 20.000tik 30.000 eurora.

Gobernuaren azalpen ofizialak hona-

koa dio: "Ezaugarri teknikoen zorrotasuna eta kreditu entitateen finantziario arazoak handitu egin dira azken hilabeteetan, eta beraz, entitate horiek gero eta zorrotzagoak dira arriskuak bere gain hartzeko".

Aste honetan VIVE planak izan dituen aldaketei esker onuradunen kopurua handitu egingo da, eta plan erakargarriagoa eta sinpleagoa izango da. Malgutasuna ere handiagoa izango da erabiltzaileentzako eta komertzializazioa hobea izango da.

VIVE planaren nobedadeen ardatzak hauek dira, beraz: txatarratarako antzinatea hamar urtera murriztea (lehen hamabostekin) eta antzinatea suneko limiterik ez duten autoak onartzea, txatarratara doan

autoak 250.000 km baino gehiago badauzka. Hortaz, orain arte ziren 4 milioi autotik 9 milioi autora pasa da planaren eremua.

Azpimarragarria da jakitea txatarratara eramateko edo bajaran emateko epea luzatu egin dela, hau da, posible dela mailegu edo leasing kontratua egin ondoren burutzea plan hau; horrela, erosleak finantziario propioarekin finantza dezake ibilgailuaren zati bat.

Azkenik, aipatzekoa da lehenik ere VIVE plana legeztatu dutenek aukera izango dutela orain plan berrian egin diren aldaketetara moldatzekoa.

GIAUTO

19.150

- 9.200

AZKEN UNITATEAK

GETZ 11 3 ate




ABS eta EBD
ALPINE Audio Ekipo
C.D. eta MP3arekin.

9.650

eurotik hasi.

Drive your way



ACCENT 14 GL 3 ate

6 airbag, ABS eta EBD
Aire argaltzaileekin.

9.950

eurotik hasi.



MATRIX 16 GLS

ABS eta EBD
Alpeletako kama, balabardak

12.150

eurotik hasi.

HYUNDAI

hyundai@mendaauto.com

www.piensaenllo.es

mendaauto 902 345 335

ELGOIBAR 943 74 32 00 · DONOSTIA 943 31 22 00 · IRUN 943 61 02 00 · LASARTE 943 37 15 40 · TOLOSA 943 67 40 20 · BEASAIN 943 88 34 00

Accent Modeloa, 3 ate, 1.4.0i, AA. PSP gomendatua Penintsula eta Balearetan. Honakoa baim: BEZ, garrasia, matrulazio zerga promozio kampanian eta kontzesionarioaren ekarpena. Itxotako ibilgailuentzat hilebete bukera arte bali du eskaintza honek. Accent garrak: kontsumo mistoa 6,4-6,7 (l/100km), CO2 isurtzea: 100-107 (g/km). Getz Modeloa 1,1 3 ate, PSP gomendatua Penintsula eta Balearetan. Honakoa baim: BEZ, garrasia, matrulazio zerga promozio kampanian eta kontzesionarioaren ekarpena. Itxotako ibilgailuentzat hilebete bukera arte bali du eskaintza honek. Getz garrak: kontsumo mistoa 5,3-6,7 (l/100km), CO2 isurtzea: 122-160 (g/km). Matrix Modeloa 1,6 GLS, PSP gomendatua Penintsula eta Balearetan. Honakoa baim: BEZ, garrasia, matrulazio zerga promozio kampanian eta kontzesionarioaren ekarpena. Itxotako ibilgailuentzat hilebete bukera arte bali du eskaintza honek. Matrix garrak: kontsumo mistoa 5,4-6,8 (l/100km), CO2 isurtzea: 140-106 (g/km). Agertzen diren argazkia eta eskaintza modelo ez dator bat.

8

Udazken honetan, aurreztu A. LERUN S.L.rekin



Ford Focus WRC 2006 eta 2007ko Marken Munduko Rallyen Txapelketan irabazlea

zure bigarren
amortiguatzaieak

% 50 eko
deskontua

zure bigarren
pneumatikoak

% 50 eko
deskontua

Umeentzako jarleku homologatua

1, 2, 3 taldeak,
36 kg-ra arte.

75 €

Hasiera ekeaintza

55 €



Homologazioa
EC R44/02A

Ref.: D0018

THULE sabal-kutxak



199 € tik aurrera

Ref.: zenbait

Bizikleta-euskarria

Mont Blanc
Barracuda



90 €

Ref.: 1225654

Iberia V4 Tomtom One



139 €

Ref.: D0028

Bermedun Ford ibilgailuak

Ford Selección-en likidazioa dugu. 2.500 Ford automobil erdi-berri dauzkagu, eta prezio hauekin, ez bazabiltza erne...



FordSelección
Okasiko ibilgailuak



DVD eramangarria



179 €

Ref.: 8056

LERUN S. L. AUTOAK

Beste marka batzuetan ere eskaintzak disponibilitatearen arabera

Tel.: 943 742 591

alerun@telefonica.net

Feel the difference



Igor Ezenarrok eta Haritz Goikoetxeak New Yorkeko maratoian jardun zuten antxintxika

Txikitatik zuten ametsa egia bihurtzea lortu dute

Mendaroko bi lagunek New Yorkeko maratoian parte hartu zuten, azaroaren 2an: Haritz Goikoetxeak eta Igor Ezenarrok. Lasterketa hasi eta amaitu egin zuten, elkarrekin gainera. Igorrek 3 ordu 43 minutu eta 9 segundu egin zituen (7708. postua) eta Haritz segundu bat geroago heldu zen (7713. postua).

Haritz Goikoetxea eta Igor Ezenarro pozik itzuli dira munduko lasterketarik ezagunenetik. Maratoia espero baino ikusgarriagoa dela aitortu dute.

“Jende asko espero genuen, baina agian errepide bazterretan hainbeste musika talde, Gospeleko talde... ikusterik ez genuen espero”, esan dute biek.

Igor eta Haritzentzako sekulako ametsa izan da beti munduko maratoi famatuenean korrika egitea. Euren esanetan, “txikitatik ikusi ditugu New Yorkeko maratoko irudiak telebistan eta azken urteetan beti izan dugu joateko ideia buruan”. Ametsa betetzea lortu zuten.

New Yorken mundu osoko eta maila guztietako korrikalariak ikusteko aukera izan zuten. Ikusleen artean toki guztietako banderak ikusi zituzten, baita ikurriñak ere.

Dominak aldean

Maratoi egunean, lasterketa bukatutakoan, eta hurrengo egunean ere harri eta zur gelditu ziren gauza bitxi batekin: lasterketa amaitua zuten korrikalariak domina erakusten zuten kalean. Era horretan, “kalean edonork gelditu eta zoriontzen zaitu” adierazi dute.

Maratoiaren 42 kilometroak egiteko 40.000 korrikalari inguruk parte hartu zuten. Ibilbidean 107 musika bandak animatu zituzten kirolariak.



Euskal presoek eskubideak aldarrikatuko dituzte Alkortako igoeran bihar, zapatua

Alkortara igoera bihar izango da, zapatua, 10:30etatik aurrera. Mendaroko ezker abertzaleak hirugarren urtez antolatuta du igoera, euskal presoek eskubideen alde.

Izenematea lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago egin beharko da, bi euro ordainduta. Udaletxe aurrean hasiko da eta honako lekuetatik pasatuko da: Santa Krutz, Antena, Itxusaeta eta Berasaluzetik. 4,7 kilometro izango dira, aldapan gora.

Lehenengoak txapela eta garaikurra eskuratuko ditu; bigarrenak eta hirugarrenak, beriz, garaikurra. Korrikalari gazteenarentzat saria izango da, gainera. Alkortara igoko diren guztientzako hamaiketako bikaina eskainiko diete antolatzaileek.

laz Aulestiko Igor Urionabarrenetxea izan zen irabazlea eta Mendaroko Jon Revert izan zen bigarrena.





m o t z

Trinitate ermita berri-berri laga dute

Amaitu dira Trinitate ermitako obrak, oraindik argiak jartzea falta bada ere. Angel Basterretxea apaiza pozik dago udan hasitako lanen emaitzarekin. Haren esanetan, oraindik argien kontua falta arren, "ez dago presarik". Azken batean, parrokiako jarduerak du lehentasuna.

Orain dela urte batzuk auzolanean Trinitate ermitaren teilatua konpondu zu-

ten mendaroez, baina orain benetako obra egin dute eta eraikin erlijioso berri-berria gelditu da.

Horrez gain, barruko hormetako hariak estali egin dituzte, *rasetu* eta kolorea eman diote.

Trinitate ermitarako koadroa margotu zuen Japongo artista batek. Margolana laster jarriko dute han zintzilik.



Zeharo aldatuko da Errekabarren zubia

Mendaroko Udalak Errekabarren zubia berritzeko lanak eman ditu, eta zubiaren itxura erabat aldatuko da. Izan ere, teilatuak eta alboetako hormigoizo hormak kentuko dizkiote. Gainera, lurra berritu egingo diote.

Jose M^a Linazasoro kalean ere obrak egingo dituzte. Gaur egun zubiaren azpian kalea asko estutzen denez, hango eskilarak eta horma bota egingo dituzte, kalea zabaltzeko. Horrela, zubira igotzeko irisgarritasuna hobetu egingo da.

Zubia erdi estalita egongo da ipar aldetik. Hego aldera begira, balkoi estaliak jarriko dizkiote, eserleku eta guzti. Estructura berri guztia altzairuzkoa izango da eta hormigoia ordezkaturiko du.

Lanen aurrekontua 447.879,26 eurokoa da eta Goitu SL enpresak jardungo du.

Kontzesio azoka

Abenduaren 6an izango da kontzesio azoka. 9:30etik aurrera, produktu ekologikoak, barazkiak, pastak, pastelak, ogia eta artisauek izango dira. Eguerditik aurrera, trikitalariak, txahal dastaketa eta herri kirolak izango dira. Baserritar jantzitako bikote dotoreenarentzat ere saria egongo da. Arratsaldeko jaialdia San Agustin kulturunean izango da.

Ibai Portu eta Alain Ulazia mendaroez hitzaldia emango dute Mutrikuko Kultur Etxean

Mutrikuko Kultur Etxean hitzaldia emango dute abenduaren 2an, 19:00etan, Ibai Portu eta Alain Ulaziak, argitara eman berri duten "Arno, piztiak eta bandiduen" liburuar buruz. Mutrikuko Udala hitzaldi zikloa ematen ari da Astigarribiako San Andres elizaren 900. urteurrena dela-eta.

San Andres eliza Gipuzkoako eraikin erlijioso zaharrenetako da. Mendaroez Arno Mendiari buruzko beste ikuspegi bat emango dute. Portuk landare eta fauna alorrean Amoren berezitasunak azalduko ditu. Ulaziak, beriz, inguru hartako kondairak argituko ditu, bandiduen gorabeherak.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83




Jostailuen erakusketa gidatua jarriko du martxan Atxutxiamaikak datorren astean

Gainera, umeei jostailu tailerrak eta gurasoei hitzaldia ere eskainiko dizkie

Jostailuen erakusketa gidatua antolatu du Atxutxiamaikak azaroaren 27tik 30era, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Guraso, ume eta hezitzaileentzat jostailuen gaineko informazioa emateko balio izango du ekimen horrek.

Jostailu beliko, pedagogiko, didaktiko eta bestelakoak ezagutu eta aztertze-ko aukera izango da bertan. Horrez gain, jostailu bakoitzak umearen garapenerako zer funtzio betetzen duen jakin ahal izango da. Katitateari buruz gehiago jakiteko aukera ere izango da.

Ordutegia

Erakusketa 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eguen eta barixakuan. Zapatu eta domekan, berriz, 11:00etatik 14:00etara.

Erakusketan gurasoentzako orri informatiboak banatuko dituzte. Era berean, jostailuak ukitu, manipulatu eta jolasteko aukera ere eskainiko dute.

Erakusketaz gain, beste hiru jarduera ere antolatu ditu Atxutxiamaikak Kultur Etxean: umeentzako jostailu tailerrak erakusketa gelan bertan, batetik: azaroaren 28an LHko 3.etik 6.era arteko umeen txanda izango da (17:30-19:00); eta 29an HHko eta LHko 1. eta 2. mailetako umeena (12:00-13:30).

Bigarren jarduera gurasoentzako hitzaldi bat izango da, "Nola egin jostailu egokia aukeratzeko" izenburua daramana (azaroak 28, 18:00, hitzaldi gelan).

Hirugarrena jostailu bilketa izango da. Erabiltzen ez diren jostailuak erakusketara bertara eramateko eskatu du Atxutxiamaikak, premia duten umeei banatzeko.

JOSTAILUEN
ERAKUSKETA
GIDATUA 08



Eskolako erasoen gaia izango da datorren barixakuko antzezlanaren ardatz nagusia



Datorren barixakuan Pikor antzerki taldeak *Jokoaut* lana eskainiko du Herriko Antzokian. Ikuskizuna 22:15etan hasiko da. Sarrerak Kultur Etxean eta Arreta Bulegoan eskuratu daitezke aldeztetik. Gazteria eta Bertintasun sailek antolatu dute ikuskizuna. Izan ere, lanak bullyingari buruzko eztabaidan murgiltzen gaitu, eskolako erasoen gaian alegia. *Jokoaut* antzezlanarekin trilogia osatu du Pikor antzerki taldeak. Lehenago, hies gaitzari buruzko *Ikutuz ikutu* eta drogei buruzko *Zapaldu marra* eskaini zituen. Gazteei arriskuak eragiten dizkien erakarpen irrazionalari buruzko gogoeta egiten dute hiru lanek, tresna pedagogiko eraginkor izateko asmoz.

Napoka Iria Japonian

Azaroaren 28tik abenduaren 8ra bitartean sei kontzertu eskainiko ditu Napoka Iria taldeak Japonian. Hango lagunei eta kontaktuei esker joango dira Ander Mujika (gitarra) elgoibartarra eta Miren Narbaiza eibartarra.

Santa Zezilia kontzertua

Santa Zezilia kontzertua eskainiko du Udal Musika bandak domekan, 12:30etatik aurrera Herriko antzokia. Kantu hauek joko dituzte:

- ♦ *Recordando a un amigo* pasodoblea (Marti)
- ♦ *Dialogos* rapsodia sinfonikoa (Bonete),
- ♦ *Do-re-mi* (Rodgers),
- ♦ *Duncannon* overture (Ployhar)
- ♦ *A Leroy Anderson Portrait* (Anderson)

Zapatuan, berriz, meza egingo dute Parrokian Bandako hildakoen alde.

Josu Arregi azpeitiarrak bigarren aldiz eskuratu du txapela Karakateko igoeran

Karakate gainera iritsi den lehen herritarra Iñigo Lariz izan da

Josu Arregi azpeitiarrak 29 minutu eta 18 segundo behar izan ditu Karakatera igotzen lehena izateko; 2004an ere bera izan zen azkarrena. Orian bi urte, denbora berbera egin da, bigarren postua eskuratu zuen; izan ere, Aritz Kortaberria 29 minutuan igo zen Karakatera, eta errekorra ezarri zuen. Lehenengo elgoibartarra Iñigo Lariz izan da; iazko irabazlea. Emakumezkoetan, Oihana Kortazar elgetarrak errekor berria ezarri du 36 minutu eta 57 segundoko markarekin. Elgoibarko lehen emakumea, Pilar Arriola izan da: 41 minutu eta 38 segundo. Argazki guztiak eta bideoak www.elgoiBARREN.net atarian ikus daitezke.



Josu Arregi izan da aurtengo irabazlea.



Kortazarrek emakumeen errekorra ezarri du.



Lariz lehen elgoibartarra izan da.



Arriola Elgoibarko lehen emakumea izan da.



Parte hartzaileek taldeko argazkia atera zuten Morkaiko Mendi Taldekoekin.

Sailkapena

1. Josu Arregi (Azpeitia)	29:18
2. Mikel Albeniz (Donostia)	30:25
3. Joseba Plaza (Markina-Xemein)	30:42
4. Aritz Kortaberria (Arrasate)	30:50
5. Iñigo Lariz	31:45
6. Jose Mari Fdez. Suso	31:52
7. Oscar Malvar	32:26
8. Haritz Arrieta	32:43
9. Julen Garitano (Antzuola)	33:04
10. Iñigo Ortuoste	33:08
11. Jokin Urresti (Markina-Xemein)	33:25
12. Igor Rey (Mendaro)	33:31
13. Beñat Zafra (Mutriku)	34:43
14. Iban Murua	35:20
15. Adur Juaristi (Deba)	35:37
16. Igor Agirregomezkorta	35:39
17. Javier Garduno (Anoeta)	35:48
18. Aitor Osoro	35:52
19. Jose Antonio Ruiz	36:12
20. Igor Urianabarrenetxea (Aulesti)	36:15
21. Jon Larrañaga (Mendaro)	36:19
22. Ibon Serrano	36:21
23. Asier Irazabal (Bilbo)	36:33
24. Oihana Kortazar (Elgeta)	36:52
25. Mixel Zenarruzabeitia (Aulesti)	36:53
26. Gotzon Zulaika (Mendaro)	36:56
27. Ekaitz San Vicente (Arrasate)	37:16
28. Sabin Zenarruzabeitia (Aulesti)	37:26
29. Jesus Mari Agirretxe (Altzola)	37:32
30. Garikoitz Uzkudun (Azpeitia)	37:50
31. Eduardo Uriguen	37:54
32. Imanol Larrañaga Txino	38:16
33. Martin Dominguez	38:49
34. Arkaitz Astiazaran (Lastur)	39:03
35. Josu Orbea	39:28
36. Jesus Beristain	39:35
37. Jose Antonio Agote	39:35
38. Jon Peli Uriguen	40:35
39. David Martin (Arrasate)	40:56
40. Imanol Cerdeira	41:17
41. Javier Fernandez	41:33
42. Pilar Arriola	41:38
43. Javier Oñederra	41:49
44. Jose Mari Ansa (Lasarte)	42:10
45. Ignacio Perez	42:17
46. Roberto Garcia Txeto	42:21
47. Gaizka Argarate	43:02
48. Jose Mari Juaristi (Deba)	44:07
49. Patxi Alberdi (Azpeitia)	45:19
50. Jose Mari Alberdi (Azpeitia)	45:25
51. Eneko Aduriz	46:42
52. Luis Ariznabarreta (Soraluze)	48:09

AITOR OLABARRIA

CD Elgoibarko koordinatzailea

Elgoibar Futbol taldean zuzendaritza batzorde berria sartu zen joan den ekain aldean, eta futbol base deiturikoa lantzea da euren erronketako bat. Horretarako, Aitor Olabarria markinarra hartu dute: koordinatzaile lanak egiten ditu gaztetxoekin, eta gustura dabil. Lehendik ere ezagutzen zuen kluba Olabarriak: hiru urtez bertan jokatu zuen.



“Futbolean jokatzeko erakusten diegun moduan, pertsona izaten ere erakutsi behar diegu gazteei”

Aitor Olabarria erdian, lehen planoan; inguruan, CD Elgoibarko entrenatzaileak.

Elgoibarren zaude koordinatzaile, baina aurrez non ibili zara?

Futbolari neure herrian hasi nintzen, Artibai taldean; gero Ondarroan; Elgoibarren hiru denboraldi; Azkoitian ere jokatu nuen urtebete; Mutrikun ere egon nintzen, eta azken urtea Lekeition. Futbolaria nintzen bitartean, entrenatzaile ere aritu nintzen, gaztetan alebinak eta infantilak errotan nituen eta Markina-Xemeingo eskola bietan koordinatzaile jardun nuen. Athleticeko alebinekin eta Lekeitioko kadete eta jubenilekin ere entrenatzaile aritu naiz.

Zelan ikusten duzu zure burua koordinatzaile lanetan?

Gazteekin asko gustatzen zait ibiltzea, eta koordinatzaile lanarekin gustura nago. Eduki dudana lan gogorra entrenatzaileak topatzea izan da. Adinera egokitutako entrenamendua egin behar da, eta edukadore lana ere egiten dute. Talde bakoitzean bi pertsona jarri ditut. Atezaintzako beste entrenatzaile batzuk ditugu, sei guztira. Gainera, dirurik irabazi gabe etortzen dira, gustura datozelako. Horrelako jendea txapela kentzeko modukoa da.

Gaztetxoekin aritzen zarete...

Jubenil mailatik beherakoak dira. Futbol basea indartzea nahi zuen zuzendaritza talde berriak: hemen talde garrantzitsua Haundi da, gainontzeko herri guztietan bezala. Eta inportantea

da erreferentzia edukitzea. Baina gure lana izango da jendea lantzea ahalik eta gehien igotzeko; Haundira lehenengo, eta gero gainontzeko taldeetara. Zenbat eta Elgoibarko jende gehiagok jokatu Haundin, hobeto.

Futbola, ez da erakusten duzuen bakarra...

Kolektibo moduan zelan ibili, errespetua jendeari, ordutegiari... diziplina pixka bat ere sartzen diegu. Futboleko jokatzeko erakusten diegun moduan, pertsona izaten ere erakutsi behar diegu gazteei. Jendea futbolera gustura etortzea nahi dut, ez erdi derrigortuta. Guk ditugun entrenatzaileek, giroa sortzen dute eta futbola gustatzen zaie.

Zer hobetuko zenuke?

Beti dago zerbait hobetzeko, baina denon artean gauza hobetzeko bidean goaz, eta pozik nago eman ditugun pausuekin. Zuzendartzan, adibidez, esfortzu handia egin dute material aldetik.

Realarekin ere kolaboratzen du Elgoibarrek.

Realak edozein lesio edukiz gero, medikua eskaintzen digu. Zubietako atea zabalik dauzkagu zentzu horretan. Eta teknika aldetik, materiala ematen digute. Erlazio ona daukagu, alde horretatik ez daukat inolako kezarik.

Morkaikoren mendiko argazki lehiaketan parte hartu daiteke

Argazkiak aurkezteko azken eguna abenduaren 1a da

Mendia gustuko baduzu, eta argazkiak ateratzea ere bai, Morkaiko elkarteak antolatutako mendi argazki lehiaketan parte hartu dezakezu. Abenduaren 1a da lanak aurkezteko azken eguna, eta pertsonako lau eraman daitezke. Bazkide izatea beharrezkoa da.

Lanak emateko era bi daude: Morkaikoren egoitzara CD batean grabatuta eramatea, edo e-postaz bidaltzea morkaiko@morkaiko.net helbidera. Koloreetan nahiz zuri-beltzean ateratakoak izan daitezke, eta neurriari dagokionez, panoramikoak ezin dira aurkeztu.



lazko argazki irabazlea: *Joaquin Sanchez*

Abenduaren 15etik 23ra erakusketa egingo dute, eta ikusleek saria eman ahal izango dute. Ikusleen saria 125 eurokoa da, eta argazki onenarena, 150 eurokoa. Ongarri kultur elkarteak aukeratuko du.

Samuel Sanchez txirrindularia etzi etorriko da

Elgoibarko Debarrena BTT Zentrura etorriko da etzi Samuel Sanchez txirrindularia Ermuaran-Sallobenteko ibilbide gidatua egitera. 11:00etan hasi eta 13:00ak arte bizikletarekin gerturatzen diren haur eta gazteek txapeldun olinpikoaren sinadura jaso ahal izango dute, eta txirrindularitzako ekipazioak ere zozketatuko dituzte. Euria egiten badu, Ikastolako frontoian bizikleten ginkana egingo dute.

Behobia Txikian, Mintxeta taldeko bederatzi atleta

Behobiako lasterketan, umeentzako ibilbide berezia egiten dute, eta aurten 600ek hartu dute parte; tartean, Mintxeta atletismo taldekoak. Zortzi eta hamar urtekoen artean loar Urkiri izan zen lehena, eta Nora Mandiola hirugarren sailkatu zen. Hamaika eta hamabi urtekoen artea Lorea Santiago izan zen azkarrena, eta Ainhoa Etxeberria bosgarrena. Mutiletan, Unai Sanchez zortzigarren helmugaratu zen.



EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Amurrio 2
Bergara 3 – Elgoibar 0 (1. erreg.)
Soraluze 0 – Elgoibar 9 (Jub.)
Elgoibar 1 – Ordizia 3 (Kad.)
Hamaikak Bat 1 – Elgoibar 0 (Inf.)
Beasain 3 – Elgoibar 2 (Txik.)
Elgoibar 3 – Aloña Mendi 0 (Neskak)

ARETO FUTBOLA

Jarrileros 4 – Kenci Elg. 2 (Nazional B)
Azpeitiko 2 – Elgoibar 3 (Jub.)

ESKUBALOIA

Tecnifuelle Elg. 24 – Basauri 19 (Sen. nesk.)
San Adrian 25 – Cometel Elg. 26 (Jub. nesk.)
San Adrian 14 – IMH Elgo. 31 (Kad. nesk.)
BKL Iñauti 28 – Alcoerta Elgo. 33 (Sen. mut.)
Ereintza 36 – Pneumax Elg. 29 (Kad. mut.)
Ikus Elgo. 20 – Urnieta 11 (Kad. nesk.)
Astigarraga Elgo. 19 – Aloña B 11 (Inf. nesk.)
Aterpe Elgo. 15 – Zarautz E 19 (Inf. nesk.)
Urola 6 – Lili Elgo. 23 (Inf. nesk.)
Txariduna Elgo. 17 – Bankoa Elgo. 35 (Inf. mut.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 22
15:45 Kenci – Ancla Dosanpor (Sen. mut.)

Domekia, 23

09:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Jub. mut.)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 22
12:30 Elgoibar – Arrasate (Txik.)
15:00 Elgoibar – Urki (Inf.)
16:30 Elgoibar – Bergara (Jub.)
18:30 Elgoibar – BTLs (1. erreg.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 22
09:00 Bankoa – Amenabar (Inf.mt.)
10:15 Lili Elg. – Aiala (Inf.mt.)
11:30 Pneumax Elg. – Euskalduna (Kad.mut.)
17:30 IMH Elg. – Aloña Mendi (Kad.nesk.)
19:00 Cometel Elg. – Aloña Mendi (Kad.mut.)
Domekia, 23
12:30 Alcorta Elg. – Donibane (Sen.mt.)

ESKU PILOTA

Barikua, 21 (Gipuzkoako Txapelketa)
22:00 Lagunak – Alde Zaharra (Jub.)
Ostean Lagunak – Oiarpe (Jub.)

SASKIBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 22
13:00 Ambolo – San Viator (Inf. nesk.)
Domekia, 23
12:30 Gabi – Azkune (Sen. mut.)

LANA

ESKAERA

• Neska lanerako prest, sukalde laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko.

☎ 678 939 382

• Pertsona lanerako prest, nagusiak zainduz edo etxeko lanak eginez. Esperientziarekin eta gomendioak.

☎ 686 521 598

• Adimeko pertsonak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke, arratsaldean.

☎ 943 743 251

• Emakumea lanerako prest, goizeko 10:30etik arratsaldeko 18:00etara. Haur eta nagusien zainketan edo garbiketan.

☎ 680 808 125

• Emakumea lanerako prest, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, haur edo nagusiak zaintzen, garbiketa edo taberna batean.

☎ 699 813 826

• Neska, lanerako prest, esperientziarekin pinturan eta oholeztatzean.

☎ 658 164 787

• Neska gaztea, zerbitzari lanetarako (esperientziarekin), garbiketerako edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 617 056 828

• Neska, lanerako prest nagusiak edo haurrak zaintzen edo etxeak garbitzen.

☎ 629 615 302

• Umeak edo nagusiak zaintzeko prest. 16:00etatik aurrera.

☎ 639 240 038

• Neska gaztea, nagusiak edo umeak orduka zaintzeko prest, eta garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 689 202 618

• Umea edo nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo arropak lixatzeko prest. Egun osoan zehar.

☎ 639 505 375

• Umeak edo nagusiak zaintzeko. edo garbiketa lanak egiteko eta arropa lixatzeko prest. Egun osoan.

☎ 686 234 612

• Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 636 053 115

• Mutila, lanerako prest. Esperientzia elektrizitatean, igeltsertizan eta pintura lanetan.

☎ 636 053 115

• Neska, lanerako prest gida-baimenarekin eta kotxearekin.

☎ 669 154 143

• Klase partikularrak emateko (lehen maila) neska eskaintzen da

☎ 608 992 601

• Neska gazte bat eskaintzen da garbiketa lanetarako (atariak. etxeak...) edo etxeak garbitzeko.

☎ 696 770 480

ESKAITZA

• D.B.H.3.mailako ikasle batek euskarazko klase partikularrak behar ditu, interesaturik dagoenak dei dezala.

☎ 687 734 656

ETXEBIZITZA

SALGAI

• Etxea salgai Elgoibarren, Pedro Mugurua etorbidean, 75 m², 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa, balkoiduna, bista onak, oso argitsua eta igogailuarekin. Berrizatzeko.

☎ 628 159 533

ALOKAIRUA

• Pisua alokairuan Errosario kalean, 2 logelarekin.

☎ 688 669 482

• Etxea alokatzen da Mendaron.

☎ 658 379 393

• Alokairuan pisua bilatzen dut Elgoibarren, 3 edo 2 logelarekin. ☎ 696 246 962

LOKALAK

• Garajea saltzen da Elgoibarren (erdigunean), 23m² (bi kotxerentzako edukiera), eta bi solairurekin (zutik egoteko moduan).

☎ 637 946 954

MOTORRA

• Salgai Nissan Terrano II 2,7 TDI Sport. Oso egoera onean dago. 2001eko abendukoa.

☎ 699 826 609 / 659 575 487

• Chevrolet Tacuma, 3 urte ditu, gris-urdinxka, 32.000km. Prezio onean.

☎ 943 744 500 / 686 052 665

BESTELAKOAK

• Etxetresna elektrikoak, etxeko altzariak, oheko arropak eta gortinak behar dira.

☎ 676 444 171

• Lur zati bat saltzen da. Azkaratetik Azkoitira bidean, pistaz ondo inguraturikoa, bi hektarea ingurukoa.

☎ 671 977 171

ABISUAK

• Madala inguruan mugikor bat galdu da. Topatzen duenak mesedez deitu. Eskertuko dut.

☎ 686 234 612

I. URTEURRENA



MARIA LARREA ALBERDI

Antonio Fernandezen alarguna

2007ko azaroaren 19an hil zen, 91 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroak 22, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretanoi eskerrak alde zuretik.



V. URTEURRENA



JOSE JULIAN ZUBIAURRE

Haren oroimenez V. urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroak 22, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

“Erraza izan zen zu maitatzea ezinezkoa izango da zu ahaztea. Beti gurekin izango zara.”



Etxekoak



• Bihar urtebete, **Befiati** Zorionak eta kilo bat muxu danon partez. Muak!



• Zorionak, **Naia**, astelehen urtetxo bat egingo duzulako, bereziki Intzaren partez.



• Zorionak, **Jone**, bost urte bete dituzulako! Bost muxu handi Elgoibarko familiako partez.



• Zorionak, bihurri txiki, azaroaren 15ean bi urte egin zenituelako. Muxu handi bat gurasoen, eta ahizpa Maialenen partez.



• Zorionak, **Agurtzanel** Familiako eta beti zure alboan dagoen lagunaren partez. Muxu potolo bat.



• Zorionak, **Adoracion**, domekan 68 urte egingo dituzulako. Ondo pasa eguna.



• Zorionak, **David**, bihar zortzi urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiako, eta bereziki, Sarai eta Danelen partez.



• Zorionak, **Josu**, domekan zazpi urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiako partez.



• Zorionak, **Haritz**, zazpi urte egin dituzulako. Nagore, Julen eta bereziki, amama Paularen partez.



• Zorionak, **Izaro**, domekan lau urte egingo dituzulako. Familiako eta lehengusinen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Asier**, astelehen zazpi urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxeko, eta bereziki, Alexen partez.




• Zorionak, **Ainhoa**, atzo sei urte egin zenituelako. Besarkada handi bat etxekoen partez.



• Hilaren 20an zazpi urte egin zenituelako, zorionak eta muxuak, **maitia!** Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Andrea**, bihar hamabi urte egingo dituzulako! Familiako eta bereziki, gurasoen partez.



• Zorionak, **Danel**, gaur hiru urte egin dituzulako. Muxu bat etxekoen eta bereziki, Aneren partez.



• Zorionak, **Ane**, azaroaren 15ean zortzi urte egin zenituelako. Muxu bat familiako eta bereziki, Noraren partez.



• Zorionak, **Amaia**, atzo hamabost urte egin zenituelako. Muxu handi bat gurasoen, eta ahizpa Cristinaren partez.



• Zorionak, **Julen Arregi**, gaur 11 urte egin dituzulako. Ondo pasa urtebetetze festan. Aita, ama eta anaia Anderren partez.



• Zorionak, **Alain eta Aitzol**, hiru eta zortzi urte beteko dituzulako. Muxu handi eta potolo bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Ion eta Irati**, zuen urtebetetze egunean. Ondo-ondo ospatu eguna! Muxu handi bat familiako partez.

OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARREneko bulegora edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali. Tel.: 943 744 112

OKINDEGIA

23 domeka **BOLINTXO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 21 Ibañez
- 22 Garitaonandia
- 23 Garitaonandia
- 24 Etxeberria (Santa Ana)
- 25 Fernandez
- 26 Yudego
- 27 Zabaleta
- 28 Etxeberria (Errosario)

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBARREN.net



hitzaizak

21 barixakua

19:30 Elikadura
osasungarriaren onurak

Haizeak antolatuta, Naiara Malave, Iñaki Arregi eta Jon Muninek hitzaldia eskainiko dute Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

28 barixakua

18:00 Nola egin jostailu
egokia aukertzeko

Atxutxiamaiak antolatuta, Maite San Vicentek hitzaldia eskainiko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



musika

21 barixakua

18:30 Kontzertuak eta
diploma banaketa

Santa Zezilia kontzertuak eta diploma banaketak musika eskolako auditorioan.

22:00 Sotoko hotzak

Sinuosek antolatuta, Gora Japon taldearen kontzertua Kultur Etxeko sotoan.

23 domeka

10:15 Musika bandaren
kalejira

Plaza Handian hasita, kalejira egingo dute.

12:30 Musika Bandaren
kontzertua

Santa Zezilia eguneko kontzertua, Herriko Antzokian. Ondoren, bazkaria egingo dute Karakate elkarteak.



antzerkia

28 barixakua

22:15 Jokoaut antzezlanak

Pikor Teatroa taldeak, jokoaut antzezlanak aurkeztuko du. Antolatzaileak: Gazteria eta Berdintasun saila.



kirola

23 zapatua

11:10 Bizikleta irteera

Samuel Sanchezekin Sallobertera ibilbide gidatua. Euria egiten badu, Ikastolako frontoian bizikleta ginkana egingo da.



Gure gomendioa

Elgoibar Koloretan

Azaroak 27, eguena, 19:00etan

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak, *Elgoibar Koloretan* mahai-jokoa aurkeztuko du. Gure herriari buruzko galdera jokoa da. Hainbat alor eta gairi buruzko 900 galderaz osatutako jokoa da. Familian edo lagun giroan jolasteko aproposa. Aurkezpen ekitaldia Musika Eskolako auditorioan izango da.



«Vicky Cristina Barcelona»

21, barixakua: 22:15

22, zapatua: 22:15

23, domeka: 19:00

24, astelehena: 21:30

«Vicky Cristina Barcelona». AEB-Espainia,
2007. Iraupena: 96 minutu.

Zuzendaria: Woody Allen.

Aktoreak: Scarlett Johansson, Javier Bardem, Penelope Cruz, Rebeca Hall.

Bi neska gazte estatubatuar Bartzelonara helduko dira udako oporrak pasatzera. Han margolari jator batekin elkartuko dira, baina hark emazte ohia ikusten jarraitzen du, eta hura oso jeloskorra da.

era kusketak

27 eguena

17:00 Jostailu erakusketa gidatua

Atxutxiamaiak antolatuta, azaroaren 30era arte izango da jostailu erakusketa. Hilaren 28an eta 29an umeentzako jostailu tailerrak izango dira. Kultur Etxeko erakusketa gela.

pe steak

21 barixakua

22:30 Futbolin eta ping pong txapelketa


Gazte Asanbladak antolatuta, Gaztetxean. Izen ematea momentuan bertan. Sariak: ping-pong palak eta kamisetak.

27 eguena

19:00 'Elgoibar Koloretan' mahai-jokoaren aurkezpena

Elgoibarko Izarra Kultur Elkar-teak Elgoibar Koloretan mahai-jokoa aurkeztuko du. Musika eskolako auditorioan.

PASA DEN AZAROAREN 11N ASISKO URMENTAREN EKITALDIRA AGERTU ZINETEN GUZTIOI, ESKERRIK ASKO.



25. urteurrena
Dobako Udal Euskarategien Mankomunitatea

Zerikasi

IKASTAROAK

Kalibrazio plana

Norentzat: Kalitate teknikarientzako
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2008-11-24 / Bukaera data: 2008-12-04
Non: Elgoibarren
Izenemate bukaera: Azaroak 24

Marketing

Norentzat: Komertzialentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2008-11-24 / Bukaera data: 2008-12-04
Non: Elgoibarren
Izenemate bukaera: Azaroak 24

Ipuin kontaketa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: Abenduak 13 (6 orduko ikastaroa)
Non: Mutrikun
Izenemate bukaera: Kontsultatu, 943 607 036

Maskara tailerra

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Euskaraz
Hasiera data: Azaroaren 29tik urtarrilaren 31ra
Non: Elgoibarren
Izenematea: 615 005 832

Sabel dantza

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz
Noiz: Azaroaren 29an eta 30ean
Non: Elgoibarren
Izenemate bukaera: Azaroak 20

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

Sonar ciudades»
(Ongarri eta Sotoko Hotsak)

27, eguena: 22:00

«Goazen»

22, zapatua: 19:00

«Viaje al centro de la tierra»

23, domeka: 16:30



klik - klak

andrea conde

Zure aurreneko musua espero zenuen bezalakoak izan zen?

Ondo egongo zela espero nuen, eta halaxe izan zen.

Sexuaz asko dakizu?

Apur bat: eskolan erakusten dutena, eta lagunen artean komentatzen duguna. Etxean, adibidez, ez dut horretaz berba egiten.

Musuak eman ala jaso?

Biak nahiago.

Maitemindu zara inoiz?

Bai. Oraintxe bertan maiteminduta nago.

Gizona zertarako izango zinateke?

Familia edukiko nuke gizona edukiz gero; eta emakumeen eta gizonezkoen artean dagoen ezberdintasuna aldatzen saiatuko nintzateke.

Eta lehendakaria izanez gero, zer aldatuko zenuke?

Ez zait politika interesatzen, beraz ez nintzateke lehendakari izango.

Ama izan nahi duzu?

Bai, baina oraindik ez. Hamazazpi urte dauzkat, eta hamar bat urte barru edukiko nuke umea.

Ezkondutik ala elkarrekin bizi?

Ezkondutik, eta zuriz eta elizatik gainera. Printzesen modura.

Jeloskorra zara?

Ez. Bikotereangan konfiantza daukat: berdin zait nire mutila neskekin-eta ibiltzea.

Zein ikasgai eduki nahi izango zenuke eta zein kenduko zenuke?

Filosofia kenduko nuke eta ipini bat bera ere ez: nahiko daukat gaur egun daukadanarekin.

Zenbat aldiz begiratzen duzu zeure burua ispiluan, etxetik irten aurretik?

Hiru edo lau bider: ez da makilatzen naizelako edo antzekoren bat. Askorik orrazteko ohitura daukat, eta orduan, ispilu aurrera joan eta orraztu egiten naiz beti.

Zer aldatuko zenuke zure gorputzetik?

Belarriak. Aitaren berdinak dira, eta ez zaizkit asko gustatzen.

Edertasunari garrantzi handia ematen diozu?

Ez, barrukoari gehiago. Egia da hasieran kanpokoan konturatzen garela, baina luzera begira, barrukoa da garrantzia duena.

Irakurri duzun azken liburua?

Pio Barojaren *El arbol de la ciencia* irakurri dut eskolarako, eta ez dut gomendatzen.

GAZTELEKUKO EKINTZAK



**GASTEIZKO BI-BULTZ
KARTING-ERA IRTEERA**

Azaroak 29 zapatua

**Izena emateko
azken eguna azaroak 26**

LUDOTEKAKO EKINTZAK



**ATXUTXIAMAIAKAK
ANTOLATUTAKO
JOSTAILUEN ERAKUSKETARA**

JOANGO GARA

**Ostirala hilak 28,
17:15ean Ludotekan**

Chevrolet Lacetti.

Jendeak badaki abagune onak baliatzen.



LACETTI New Yorken, 25 orduko itzalaldi hura gertatu eta bederatzil hilabetera, milaka haur jaio omen ziren. Jendeak badaki abagune onak baliatzen. Orain, Chevrolet Lacetti bat duzu aukeran: ABS, EBD, 4 airbag, atzerako isplu termiko-eléctrikoak, ixte sistema zentralizatua, urutiko kontrolagailua, MP3a eta CDa dituen irratia 9.500€-ren truke.

**Chevrolet Lacetti
9.500€-ren truke**



Giauto Elgoibar - Olaso Kalea, 25 - Salmentak: 902 345 123 - Tallerra: 902 345 125 - E-mail: clientes@giauto.es - www.giauto.es
Giauto Olaberria - Karobi Ind. - Salmentak: 902 345 225 - Tallerra: 902 345 235 - E-mail: clientes@giauto.es - www.giauto.es

Erantzukizun amaierari buruko klausula, Penintsularako eta Balearetarako PSP gomendatua (Lacetti, 1.4 16v modeloarena; BEZ, eta matrikulazio, garraio eta sustapen zerbitzu berri). Hiltzen amaiera arte balioa du. Ez da metagarria beste sustapen batzuekin. Konsumo mistoa: 5,7-8,8 l/km. CO2 emisioa: 146-210 g/km.

Zer da jostailu erakusketa?

Jostailuen gaineko informazioa guraso, haur eta hezitzaileentzat.

Merkatuaren eskaintzen diren hainbat jostailu (belikoak, pedagogikoak, didaktikoak, ...) ezagutu eta aztertzeko aukera.

Jostailu bakoitzak haurren garapenean betetzen dituen funtzioak ikertzeko aukera.

Jostailuen kalitatea (material egokia, iraunkortasuna, ...) ezagutzeko aukera.

Erakusketan gurasoentzat orri informatiboak egongo dira.

Jostailuak ulitu, manipulatu eta hauekin jolasteko aukera izango da.

Jostailu tailerrak

(Abuztuamailak antolatua)

Norentzat:
haurrentzat

Azaroak 28, barixakua
17:30etik 19:00etara
LH 3, 4, 5, eta 6mailetako
haurrei zuzendua.

Azaroak 29, zapatua
12:00etatik 13:30era
HH, LH2 eta LH3 mailako
haurrei zuzendua.

Lekua:
Kultur Etxeko erakusketa
gela

Hitzaldia

"Nola egin jostailu egokia
aukeratzeko?"

Hizlaria:
Maite San Vicente

Norentzat:
Gurasoentzat

Data:
Azaroak 28, barixakua

Lekua:
Kultur Etxeko hitzaldi gela

Ordutegia:
18:00etan

Jostailu bilketa

Lekua:
Kultur Etxeko erakusketa
gela

Erabiltzen ez duzun jostailuen bat baldin badaukazu etxean, ekarri erakusketara. Atxuki-amaiak jostailu bilketa egingo du, beharra duen familietan banatzeko.

Jostailuen erakusketa gidatua 08

Egunak

Azaroaren 27tik 30ra.
Guraso nahiz haurrei
zuzendua

Lekua

Kultur Etxeko
erakusketa gela

Ordutegia

Eguena eta barixakua
17:00etatik 20:00etara

Zapatua eta domeka
11:00etatik 14:00etara

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Antolatzailea:



Elgoibar KOLORETAN

Gure herria hobeto
ezagutzeko
mahai-jokoa



Gaurtik aurrera salgai!

Aurkezpen-ekitaldia:

Azaroak 27, eguna / 19:00etan

Musika Eskolako auditorioan



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA